

V. Mendi Argazkilaritza *Mendiklik* Tailerra

“Teknika aurreratuak paisaia eta mendiko naturaren inguruko argazkilaritza”

Mendiklik tailerraren bosgarren ediziora heldu gara mendiko argazkilaritzaren arimaz hausnartu ondoren, argazkiak ateratzeko gure erak planteatu ostean, eta behin alturako naturari eta bertan praktikatzen ditugun jolas-jarduerei eta kirol-jarduerei so egiteko era birpentsatuta.

Orain beste bira esanguratsu bat egingo dugu, eragin handiko maisu argazki ospetsuetan erabiltzen diren teknika aurreratuak ezagutu eta erabiltzen jakin nahi dutenengan arreta jarri ahal izateko.

Tailerraren helburuak

Ingurumenean argazkilariek eskura izan ditzaketan baliabide teknikoak ezagutzea eta eguneratzea, ikusmenerako botereak diren irudi interesgarriak lortzeko.

Tailer honetan, naturan interesgarriak gertatzen diren hiru espazio teknikoak landuko ditugu: filtroen erabilpena paisaia-argazkilaritza, lana formatu panoramikoetan eta Barruti Dinamiko Altuko (HDReko) irudiak lortzeko hainbat teknika. Dena den, ez dugu soilik teknika landuko; konposizio grafikoa eta lan-eremuan argiaren kudeaketa nola egiteari ere ekingo diogu.

Tailerraren eskema

- 1) Parte-hartzaileek euren buruak aurkeztuko dituzte, eta mendian eta argazkilaritza bakoitzak dituen interesen hausnarketa burutuko da taldean.
- 2) Tailerraren alor teknikoak berrikusiko eta eztabaidatuko dira, eta parte-hartzaileek dituzten beharrian eta ardurei erantzuna emango zaie.
- 3) Mendira egingo den irteeran parte-hartzaile bakoitzaren zalantzak argituko dira eta teknikak eremuan bertan landuko dira.
- 4) Parte-hartzaile bakoitzak bere lanak eraman ahal izango ditu. Lanak danon artean ebaluatuko eta analizatuko dira, taldearen probetxurako.

Nori zuzendua

Argazkilaritza, mendia eta natura gustuko dituzten pertsonen zuzenduta dago; baita paisaia eta mendi argazkilaritzako teknika espezifikoa ikasi nahi dituztenei ere.

Parte-hartzaileei argazkilaritzako oinarrizko ezagutzak izatea gomendatzen zaie. Jardunaldi praktikora euren kamera eraman beharko dute eta gomendagarria da ordenagailu eramangarri bat izatea postproduzio teknikak lantzeko.

Edukiak

ARGIA NATURAN ETA MENDIAN

Argia esploratu; mendiko baldintza egokien analisia eta kudeaketa.

FILTROAK

Filtroak paisaian.

Filtroak mendiko jardueran.

Hardwarea eta softwarea.

Bizkar-zorroan eramateko tresnak ala postprodukzioko tresnak.

PANORAMIKAK

Ikuspegian pentsatzea, 16:9an edo 3:2an.

Formatu panoramikoaren oinarriak. Proporzioak eta konposizioa panoraman

Panoramak sortzeko oinarritzko teknikak

Tresnak: hardwarea (tripodeak, kamerak, errotulak, filtroak, osagarriak...) eta softwarea (PanoramaMaker, PTGui, Photomerge, PhotoStich...).

Panoramika esferikoak (360º): sarrera, prozedura eta lehenengo urratsak.

HDR (BARRUTI DINAMIKO ALTUA)

HDR-aren (Barruti Dinamiko Altuaren) kontzeptua eta oinarriak. Benetako argazkilaritza ala argazkilaritza faltsua?

HDR-rako irudiak ateratzea.

HDR-a kameran.

HDR postprozesatzean: hardware eta software beharrezkoa. Tresnak eta prozedurak.

Postprozedura errazenetik teknika konplexuenera.

EGUTEGIA

Datak: 2015eko abenduaren 19an (larunbata) eta 20an (igandea)

Lekua: Zabalguneko Eraikina (Zabalguneko Plaza 11, Bilbo)

Ordutegiak:

- 19 (larunbata):

Goizez: 11:00etatik 13:00etara

Imanol Marrodan argazkilari eta artistaren hitzaldia

Arratsaldez: 14:30etatik 19:30etara

Klasea Santi Yaniz argazkilariarekin

- 20 (igandea):

Goizez: 8:00etatik 13:00etara

Arratsaldez: 14:30etatik 18:30etara

Igande goizean mendira edo gertu dagoen natura-gune batera irteera egingo da; baldintza meteorologikoen arabera antolatuko da eta parte-hartzaileekin adostuko da (bakoitza bere kabuz joango behar da). Igande arratsaldean lana denen artean ebaluatu eta aztertuko da, behar diren postprozedurak eginez. Bazkalorduak esperientziak eta motibazioak komunean jartzeko aprobetxatuko dira.

Parte-hartzaile kopurua: Plaza mugatuak, 15.

Prezioa: 125 €

99 euro izen-ematea urriaren 31a baino lehen eginez gero

Izen-ematea eta informazioa: www.mendifilmfestival.com

Santi Yanizen profila

Naturako argazkilari entzutetsuenetako bat da Santi Yaniz. Kazetaritzan lizentziatua bada ere, argazkilari gisa burututako lanak kazetari gisa egindakoekin uztartu ditu. "Freelance" profesionala eta autodidakta, hainbat argitalpen jantzi ditu irudiz: gaikako bilduma ugari, prentsa orokorreko lanak (Deia egunkariko "On" aldizkaria, esaterako), mendiko aldizkari espezializatuetako erreportajeak... EITBren "Euskal Herria lau haizeetara" saioan parte hartu zuen; eta Euskal Herriko eta Pirinioetako ibilbide ugari jasotzen dituzten hainbat mendi-liburu eta -gida idatzi ditu.

<http://santiyaniz.blogspot.com.es>